

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4912

EBAZPENA, 2024ko urriaren 14koa, Industria Administrazioiko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez iragartzen baita zerrendatutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia; finka horiek Valle de Trápaga-Trapagaran eta Barakaldoko udalerrietan daude, 13,2 kV-eko «Beurko-Ugarte cto. 2» zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoaren zuhaitzik gabeko zerrendaren handitzeko proiektuaren eraginpean, zeina Beurko (4553) TAB eta 9049 zenbakidun euskarriaren artean gauzatuko den. Instalazioaren titularra i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU da.

Erreferentzia: (48-AT-Y-2023-00044) JCI/YMM.

Industria Administrazioiko Bizkaiko lurralde-ordezkararen 2024ko ekainaren 5eko Ebazpenaren bidez, aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikokoa dela deklaratzeko berekin dakar eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluekin bat etorritik (1954ko abenduaren 17ko BOE), lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eraginpeko eskubideen eta ondasunen jabe eta titularrei deitzea eraginpeko ondasunak dauden udalerriko udaletxera (Bizkaiko Lurralde Historikoan). Hor egingo dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioaren akta.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titullarrak eta horretan bestelako interesak dituzten gainerako pertsona guztiak ere joan behar dute bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordezkari baimena duen besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioaren azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notarioaren batekin ere joan daitezke.

Honekin batera dagoen zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio-zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealean eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez lurralde-ordezkaritza honetako Bilboko egoitzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5.a), aldeztu aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

2024ko urriaren 25a, ostirala

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua bigarren arauan xedatutakoaren arabera, iragarki honek hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasunen eta eskubideen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2024ko urriaren 14a.

Industria Administrazioko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.

2024ko urriaren 25a, ostirala

ERANSKINA

OKUPATU AURREKO AKTETARAKO ZITAZIOA

13,2 kV-eko «Beurko-Ugarte cto. 2» zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoaren zuhaitzik gabeko zerrendaren handitzea, zeina Beurko (4553) TAB eta 9049 zenbakidun euskarriaren artean gauzatuko den

48-AT-Y-2023-00044 espedientea

Udalerrria	Finka	Katastroko datuak			Titularra	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udaletxea
		Poligonoa	Lurzatia	Izaera / Laborantza					
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.13	004	271	Landa / Larrea	Bizkaiko Foru Aldundia – Ogasun eta Finantza Saila – Ondare Zerbitzua	Abendua	11	09:40	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.04	004	245	Landa / Mendi Abartsua	Beobide Arteaga Juan	Abendua	11	10:00	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.06	004	012	Landa / Mendi Abartsua	Uriguren Barandiaran Carmen	Abendua	11	10:30	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.07	004	011	Landa / Larrea	Garmendiz Gamboa Pedro	Abendua	11	11:00	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.14	004	071	Landa / Mendi Abartsua, Laborantza	Ahedo Vd Balparda Julio	Abendua	11	11:30	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.23	004	138	Landa / Larrea, Mendi Abartsua	Zugasti Hornos Hr	Abendua	11	12:00	Valle de Trápaga-Trapagaran
Valle de Trápaga-Trapagaran	2.26	032-67	010	Hirikoa	Zugasti Hornos Hr	Abendua	11	12:00	Valle de Trápaga-Trapagaran